

# ZAA

ZORROTZ MORROTZ

67. ZBKIA, 2021eko URTARRILA

## AINHOA ETA NEREA LEAL LOTERIA SALTZAILEAK

ROCKAREN HAZIA ZORROTZAN

Zorrotza

**aek**

Zalbidea 7  
94 441 49 20  
zorrotza@aek.eus  
www.aek.eus

# ROCKAREN HAZIA ZORROTZAN



ERAKUSKETA

URTARRILA  
OTSAILA

17.00  
20.00

Auzoka Zentroa

Azoka Plaza

48013 Zorrotza

Origen

Trapala

Bajos Fondos

Cuestión de  
Costumbres

Papa  
Blues  
Band

Fumas  
Iskariote

La Siebe

Hijopotamos

Mercado Negro

Zaldiko  
Maldiko  
Irratia

## Bizi dugun egoera ezin da aitzakia izan desberdintasuna hazteko

Ezer baino lehen, urte berri on! laz urte oso gogorra izan zen. Es-  
pero dezagun urte berria aurrekoa baino hobea izatea.

Bizitza aurrera doa eta lanean jarraitu behar da. Pandemiak siste-  
maren josturak agerian utzi ditu, eta ugariak eta oso larriak dira.  
Horiek hobetzen saiatu behar gara, eta horretan ari gara Elkarteak:  
zailtasunak zailtasun, pertsona guztiarentzat auzo hobea lortzeko la-  
narekin jarraitzeko erabakia hartu dugu.

Arreta berezia merezi du Osasun Sistemak; izan ere, Hezkuntzare-  
kin eta Gizarte Babeseko Sistemarekin batera, oinarrizko zutabeak  
dira berdintasuna xede izan behar duen gizarte inklusibo baterako.  
Bizi dugun egoera ezin da aitzakia izan desberdintasuna hazteko.  
Gure aldetik herritarrei erantzukizunaz aritzeko deitu, eta aldi be-  
rean itxaropen-mezu bat bidali nahi dugu.

Elkarteak, auzoko Auzo Mugimendurekin batera, lan  
mordoa du aurretik, eta lanean jarraituko dugu Zorro-  
tzak merezi duena lortu arte. Beraz, esandakoa, eta  
une honetan inoiz baino gehiago, animo eta aurrera!



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

**ZM** zure e-postan  
jasotzeko, bidali mezu  
elektroniko bat  
**zmorrotz@gmail.com**  
helbide elektronikora,  
gaiaren laukian  
“harpidetza” jarriz



**Zorrotzako kultur aldizkaria**  
67. zenbakia. 2021eko urtarrila

Argitaratzen du:

**Zorrotzako Euskal Txokoa**

AEK euskaltegia

**Zalbidea, 7 behea**

**48013. Zorrotza. Bilbo**

Emaila: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

[facebook.com/ZorrotzMorrotz](https://facebook.com/ZorrotzMorrotz)

[@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

**Koordinazioa:** Naroa Peña

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**

- Ibai Barrios
- Naroa Peña
- Ainara García
- Iratze Pérez
- Igor Gutiérrez
- Zuriñe Vila
- Aitor Marín

**Zuzenketak:** Iñigo Ramírez de la Piscina

**Laguntzaileak:**

- Karlos Rodríguez
- Asier Urkiza
- Manu Cobo
- Iraitz Zuloaga



**Bilbao**  
IUDALA  
AYUNTAMIENTO

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza  
jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra



**ROCKET TAVERN**

Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

**DETAIL Car**

TU COCHE • TU IMAGEN  
Cuidado y limpieza de vehículos sin agua

**Ibilgailuen  
Garbiketa Ekologikoa**

✓ URIK GABE ✓ ESHUZ ✓ ARGIZARIAREHIN

**Fernando García Otero**  
Parking La Alhondiga ☎ 675.185.457  
✉ [alhondiga@detailcar.es](mailto:alhondiga@detailcar.es) [www.detailcar.es](http://www.detailcar.es)

**MADNESS KAPETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbidea estrada, 5 - atzea  
ZORROTZA  
48013 BILBO

**MADNES**

Tel. 94 441 62 75

## Auzoko familia bat etxegabetze arriskuan dagoela ohartarazi du Bilboko Maizterren Sindikatuak

Aitor Marín

Zorrotzako 4 pertsonako familia baten etxegabetzeaz ohartarazi du Bilboko Maizterren sindikatuak, otsailaren 1erako aurreikusita dagoena ale hau inprentara bidaltzerakoan. Krisi ekonomikoaren ondorioz, DSBE bat baino ez dute diru-sarrera gisa eta ezin izan dute hainbat hilabetetan alokairua ordaindu.

### Agindu judizialaren zain

Etxegabetzeak gelditzeko pandemia egoeran Espainiar Gobernuak etxe kaleratzen kontra ezarritako dekretuan hainbat baldintza aurreikusten dira, eta horietako bat zaugarritasun txosten bat izatea da. Maizterren Sindikatuak adierazi duenez, hainbat aste pasatu behar dira azkenik “presioaren ondorioz” Udaleko Oinarrizko Zerbitzu Sozialek zaugarritasun txostena egiteko. Hala ere, oraindik etxegabetzea geldiarazteko agindu judizialik ez dagoela ohartarazi dute.

Bilboko Udalak gai honetan izan duen erantzukizuna kritikatu du maizterren sindikatuak: “oinarrizko zerbitzu sozialetan dagoen errekursoen defizitak eta burokrazia konplexuak horrelako kasuak geldiaraztea zailtzen dute”.

### Mobilizaziorik ez momentuz

Sindikatuak adierazi dutenez, momentuz ez dute Zorrotzako kasua salatzen mobilizaziorik aurreikusten, nahiz eta aukera hori baztertu ez, “mobilizazioa etxe kaleratzeak gelditzeko bidea” dela argi baitute.

Bukatzen, etxebizitza publikoen parkea indartzeko beharra azpimarratu du sindikatuak, eta krisi ekonomikoak auzi honetan neurriak hartzeko beharra handitu du. Zentzu horretan gogor kritikatu dute Udalaren politika “justu kontrakoa” izatea, “etxebizitza sailera bideratutako diru kopurua murriztu egin baita 2021eko aurrekontuan”.

## Bilboko udalak “auzotarrekin aztertuko du” Burtzeñako zubia estaltzeko proiektua

Aitor Marín

2016ko ekainean Burtzeñako zubian estalkia jartzeko proposamena Bilboko eta Barakaldoko udalteeetan onartu zen arren, akordio hori ez da oraindik gauzatu eta eztabaidara eraman zuen berriro EH Bilduk bi udalteeetan pasa den azaroan.

Bilboko Udaleko osoko bilkuran, Asier Abaunza Bilboko Udaleko Oبرا, Hiri Plangintza eta Proiektu Estrategikoen arloko arduradunak, “proiektua osatuta” dagoela erantzun zion EH Bilduren eskaerari, baina osatuta egon arren, zalantza asko sortu zaizkio udal gobernua-ri, eta “bizilagunekin hitz egitea” nahi dutela. Abaunzaren esanetan, “bizilagunek zubiaren hegoaldea estaltzea eskatu zuten, hori baita espaloi zabalena duena”, eta kezkatuta agertu zen gerta daitekeelako hegoaldean “bisera”

eraikitzeak ezertarako balio ez izatea, “ura iparraldetik sartuko litzatekeelako”. Horregatik, Zorrotzako Barrutiko Kontseilura proiektu berri bat eramateko konpromisoa hartu du. Oposizioko taldeek, berriz, harridura adierazi dute lau urte igaro direlako dokumentu bat dagoela jakin arte, eta osoko bilkuran adostutako akordioa bete gabe jarraitzea kritikatu dute.

### Udal gobernuaren ezezkua Barakaldon

EH Bilduk, ekimen horren bultzatzaileak, gogorazi du proiektua gauzatzeko bi udalen inplikazioa beharrezkoa dela, eta zentzu horretan deitoratu du EAJk Barakaldoko Udalean proposamen hori baztertu izana. “Burtzeñako bizilagunentzat lehenasunezkoa ez izatea” argudiatu dute Barakaldoko jeltzaleek, eta une honetan “premia larrienei” erantzun behar zaiela adierazi dute.

## Zalbidea kalea berritzeko lanak hasi dituzte

Zorrotz Morrotz

Pasa den abenduaren 1ean hasi ziren Estrada Zalbidea kalea eraberritzeko lanak. Jarduera hau gauzatzeko epea bost hilabetekoa da eta 452.000 euroko aurrekontua dauka.

Bilboko Udalaren Auzokide Planaren barnean sartuta daude lan hauek, eta jarduera hauek aurreikusita daude:

1. Kaleko bi aldeetako espaloiak zabalduko dira, egungo aparkalekuei etsita.
2. Telekomunikazio-sareen, edateko uraren eta argiteria publikoaren hornidura berritzea, argi berriak jarriz. Era berean, euri-urak husteko sarea ere berrituko da kaleko geometria berrira egokituz.
3. Kale-zati osoa berrasfaltatzea, eta dagoen seinaleztapen bertikala eta horizontala egokitu.



4. Oinezkoentzako pasabidea irisgarritasunari buruzko araudira egokitzea, Untziola kalearekiko izkinean, kaleko zenbaki bakoitietako espaloian.
5. Oinezkoentzako gunean, arrapala irisgarriak eraikitzea Zorrotza-Kastrexana errepidearekiko bidegurutzean.

## Loteriaren Erregetako zozketaren lehen sariaren serie bat saldu dute Zorrotzan

Aitor Marin

Guztira, 19570 zenbakiak 2.000.000 euro banatu zituen urtarrilaren 6ko zozketan, Zorrotzako Kastrexana errepidea kalean dagoen 29. administrazioaren leihatilan saldutako hamar dezi-

moren bidez. Albiste honen inguruan gehiago sakontzeko asmoz, informazio gehiago aurkituko duzu 12. orrialdean Ainhoa eta Nerea Leal administrazioako arduradunekin egindako elkarrizketan.



**ESKAINNTZA  
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +  
KRISTALAK** GOI-  
GAMAKOAK

**265€**

Sustapena indarrean + 4,00 eserako eta  
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako

**ibarretaluxury**  
OPTICA ★

RPS: 213/18

*Regalos  
Omega*

*oparidenda*

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza

**94 482 03 66**

**www.omegadetalles.com**

100 urte



**ZORROTZA F.C.**  
*kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!*

# “ Semea eta alaba leku eroso batean, gustura eta zoriontsu hazten ari direla ikustea oso gustuko dut ”

## IRATXE MARTÍNEZ

**Bizitokia:** Mendabia (Nafarroa)

**Noiztik:** 2014ko otsailatik.

**Adina:** 37 urte.

**Lanbidea:** Gizarte langilea (Kontserba lantegiko administratiboa da orain)

Aitaren herria da Mendabia, eta udaro joaten zen bertara. Bere senarra dena bertan ezagutu eta han bizi da 2014tik. Familia sortu du eta herri txiki baten erosotasuna gustuko izan arren, zalantzan jartzen du herri txiki batean betiko gelditzea.



**Testua:** Iratxe Pérez

### **Nolatan eta zergatik joan zinen Mendabiara?**

Nire aitaren herria da eta beraz, udaro etorzen nintzen Mendabiara lagun eta familia asko baitituz hemen. Halako baten, gaur egun nire senarra denarekin harremana sortu nuen. Horrez gain, Bilbon nuen lanean konplikazioak sortu ziren eta ez nengoen batere gustura. Bizimodu aldaketa bat behar nuen eta duela 8 urte inguru senarra denarekin herrira etorri nintzen bizitzera.

### **Oso ezberdina da hango bizimodua Zorroztan zeneukanarekin alderatuta?**

Eguneroko bizitza ez da han desberdina. Azken finean, astean zehar lanetik etxera eta etxetik lanera joaten baikara. Baina asteburuetan bai. Neguan hotz handia egiten duenez eta merkataritza edo denda askorik ez

dagoenez, ia ez da inor ikusten kalean. Esan dezakegu hemengo bizimodua monotonoa goa dela.

### **Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzazun?**

Herrian mundu guztiak ezagutzen du elkar eta horrek badu alde ona, baina baita txarra ere. Kalean paseatzea eta jendearen artean ohar-kabeen igarotzea falta zait. Herri txikietan dagoen “intrusismora” ohitu behar zara eta niri asko kostatu zitzaidan. Baina gauza onak ere baditu: beti dago norengana jo, behar izanez gero.

### **Nafarroako Erriberan euskaraz bizitzeko aukera badaukazu?**

Hamar kilometrotara ikastola bat dago, baina Mendabiako eskolan euskara ikasgai modura baino ez dute irakasten. Herrian euskara-talde

bat dugu eta Olentzero, Korrika eta euskararekin lotutako ekitaldiak ospatzen ditugu, baina oraindik asko falta da benetan euskara giroan bizi ahal izateko. Nik seme eta alabari euskaraz egiten diet eta lanean Astigarragako mutil batekin mintzatzen naiz euskaraz.

### **Nolakoa da zure lana?**

Hasieran, lan batetik bestera aritu nintzen. Gainera, ezkondu eta ama izan nintzenez, egoera zaildu zitzaidan. Baina orain dela bi urte eta koska kontserba-fabrika baten bulegoan lan egiten dut eta erabat gustura nago. Nafarroako baratzeko artisau-kontserbak egiten ditugu, gehienbat. Gainera, bertako ekimenak sustatzen eta babesten saiatzen gara eta horregatik, Errigorari ere laguntzen diogu udaberriko eta Gabonetako loteetan parte hartuz.

### **Zer da han gehien eta gutxien gustatzen zaiuzuna?**

Gutxien gustatzen zaidana, familia urrun izatea da. Oso urruti ez bada ere, egunerokotasunean haien falta dudalako. Gainera, pandemiarekin, ia urtebete daramagu elkar ikusi gabe. Eta gehien, hemen sortu dudana familia eta nire semea eta alaba leku eroso batean hazten ari direla, gustura daudela eta zoriontsu ikusteak.

### **Auzora askotan bueltatzen zara?**

Pandemiaren aurretik hilean behin gutxienez, lagunak eta familiak asko tiratzen baitute. Gainera, Zorrotzako bizimodua asko gustatzen zait: dendak, tabernak, parkeak... Beraz, hau guztia pasatu eta normaltasunera itzultzeko irrikaz nago.



### **Zeren falta sumatzen duzu gehien?**

Falta, falta,... familia eta lagunak. Gainerako gauzak ez dira ezinbestekoak...

### **Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?**

Oraingoz ez, baina batek daki bizitzan eman-gotutugun bueltak! Egunen baten, gustatuko litzaidake bueltatzea. Ez naiz jaino Mendabia bezalako herri txiki batean betiko gelditzeko... kar, kar!



# ZORROTZA HERRIGINTZAN



### **ZORROTZAKO BATZOKIA**

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



**ERAKUSKETA**

**URTARRILA OTSAILA**    **17.00**  
**20.00**

Auzoka Zentroa  
Azoka Plaza  
48013 Zorrotza

- Origen
- Trapala
- Bajos Fondos
- Cuestión de Costumbres
- Papa Blues Band
- Fumas Iskariote
- La Siebe
- Hijopotamos
- Mercado Negro
- Zaldiko
- Maldiko
- Irratia

Testua: Ibai Barrios

Musikak leku oso garrantzitsua bete du gure kulturen betidanik. Euskal Herrian 70 eta 80.ko hamarkadetan bizitako gertaera politiko zein kulturalak klabeak izan ziren hainbat estilo batu zituen talde musikal desberdinen sorrera bultzatzeko. Zorrotza ez zen atzean gelditu eta orain auzoko eragile eta musikari batzuei esker gure historiaren zati garrantzitsu bat ezagutzeko aukera daukagu. 2020. urtean zehar egindako lanaren emaitza da Auzokan otsaila amaiera arte izango den “Rockaren hazia Zorrotzan” erakusketa interesgarria.



Proiektuaren sorrera ezagutzeko Auzoka zentrora jo behar dugu. Izan ere, 2019an, auzoko rock mugimenduaren aitzindariak izan ziren Bajos Fondos eta Trapala taldeak berriro elkartu eta bertako musika gelan entsaiatzen hasi ziren. Urte horren amaieran kontzertu bat antolatu eta ondoren Auzokako koordinatzailea den Sergio Chamorrok bultzatuta ideiarri forma ematen hasi ziren. Ondoren, Asier Aldasoro argazkilari eta diseinatzailearekin harremanetan jarri eta beraren ezinbesteko laguntzari esker hasierako ametsa errealitate bihurtzea lortu dute.

Honen guztiaren esanahia ulertzeko historia atzera jo behar dugu. Diktaduraren azkenengo urteek eta horren bukaerak batez ere Euskal Herrian berebiziko garrantzia izan zuten mugimendu kulturalak areagotzeko. Garai horietan Euskal Herri osoan sortutako musika taldeak funtsezkoak izan ziren Bilboko auzo langile honetan proiektu desberdinak martxan jartzeko.

Urte zailak izan ziren arren, zorrotzatarrek mugimendu honetan parte hartzeko gogo handia zuten eta auzoa eta hiria hobetzen

laguntzen zuten ekitaldiak antolatzen hasi ziren. Eguneroko arazoei aurre egiteko erantzun zuzena izan zen dudarik gabe. Hainbat taldeak sortzen hasi ziren, sekulako zeresana eman zutenak: Origen, Trapala, Bajos Fondos, Cuestión de Costumbres, Papa Blues Band, Fumas Iskariote, La Siebe, Hijopotamos, Mercado Negro eta beste asko. Entseiatzeko lokalik ez baina Barinagako Patxo taberna eta auzoko beste hainbat leku garrantzitsuak izan ziren taldeen biziraupenerako.

Horrekin batera Zaldiko Maldiko irratiairen ekarpena ere kontutan hartu behar dugu, Zorrotzako mugimendu kulturallean garrantzi handia izan zuena. Gerora ere musika talde asko izan ditugu auzoan eta euren ekarpena handia izan da. Historiaren beste zati hau ezagutarazteko ideia mahai gainean dago. Egunen batean ikusiko dugu.

Azkenik, hemendik gonbitea egiten dizuegu Auzokara hurbildu eta denboran atzera bidaiatzeko. Bertan sorpresa eta bitxikeria ugari aurkituko dituzue. Otsaila amaiera arte izango da, beraz ez aukerarik galdu!

## ERAKUSKETAN AGERTZEN DIREN TALDEAK



**Urteak:** 1968-1973

**Taldekideak:** Txema Hornilla, Jose García de Toro, Txetxu Fernandez, Luisma Prado eta Alberto Pereda.



**Hasierako taldekideak:** (1981-1983)

Carlos Pérez, Ismael García, Pako García, Luis Albertu Ruíz eta Alberto Pereda.

**Gaur egungo taldekideak:** (2019-...)

Carlos Pérez, Pako García, Jon García eta Alberto Pereda.



**Hasierako taldekideak:**

(1982-1995)  
Manolo Fernández, July Hoyos, Juan Fernández, Johnny Tuña, Felipe, Fernando Estébanez “Freddy”, Pako García eta Jose Luis Rey “El Rubio”.

**Gaur egungo taldekideak:**

(2019-...) Manolo Fernández, July Hoyos, Fernando Estébanez “Freddy”, Pako García eta Johnny Tuña.



**Urteak:** 1982-1986

**Taldekideak:**

Xiberu, Pako García, Luis Alberto Ruiz eta Germán Robador



**Urteak:** 1989-1999

**Taldekideak:** Javier de Lario,

Edu Montoya, Ives Laurent, Iñaki Etxebarrieta, Manu Carmona, Gotzon Mujika, Pako García, Txape, Santi Ibarretxe, Juan de Diego, Iñaki Gaztelu eta Elsa García.



**Urteak:** 1990-2000

**Taldekideak:**

Juanma Bejarano, Mikel Saiz, Aitor Bedoya, Jon Bedoya eta Javi Prada.



**Urteak:** 1992-1993

**Taldekieak:**

Alberto Cobos, José Eneriz,  
Iñaki Lorenzo "More",  
Javi Pescador eta  
Fernando de Torres "Len".



**Urteak:** 1990-1993

**Taldekieak:**

Fernando Delgado "Petu",  
Javier Ansede, Julián Castro,  
Julio Hoyos eta Samuel Castro.



**Urteak:** 1993-...

**Garai guztietako taldekideak:**

Javier de Lario, Pako García,  
Pedro José Laka, José Luis  
Rey, Luis Alberto Ruiz, Salvador  
Lombera, Dani, Borja Oñoro,  
Iñaki Lorenzo "More", Alberto  
Cans, Fernando Soya, Josu  
Monge, Edu Landeta eta  
Aritz de Castro.



**Vía gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**DisiNua**



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tfn. 94 441 61 46



**NEREA ETA AINHOA LEAL URKIOLA:** 29. loteria-administrazioko saltzaileak

**“Sariaren onuradun guztiak auzokideak direla baieztatu dezakegu”**

Errege egunean berri aipagarri batekin esnatu ginen: “El Niño” loteria-zozketaren sari potoloa Zorrotzan jausi zen: 19.570 zenbakia. Zorrotza-Kastrexanako 29. administrazioan egon gara Nerea eta Ainhoa ahizpekin, egun horretaz eta beraien egunerokoaz berba egiteko. Ireki berritan sartu gaituzte leihatilaz bestaldera eta bezero-jarioa etengabekoa izan da elkarrizketa osoan zehar.



### Zenbat diru banatu duzue “El Niño” zozke- tagatik?

Bi milioi euro, hain zuzen, serie oso bati da-  
gokiona, hamar dezimori.

### Horren “potoloa” den saririk inoiz saldu izan duzue?

Behin lau milioi euro banatu genituen baina  
loteria primitiboan izan zen, hau da, lagun  
bakarrari egokitu zitzaion. Aspaldi, Gabone-  
tako zozketako laugarren saria ere banatu  
genuen, hiru milioi pezeta, baina hamar se-  
rie zirenez, kopuru txikiagoa jaso zuten. Be-  
raz, esan daiteke “El Niño” inoiz jausitako  
saririk handiena izan dela.

### Zenbat urte daramazue loteria saltzen?

Gure aitak 1981ean ireki zuen administra-  
zioa, Zorrotzan lehena. Garai horretan admi-  
nistrazio gehienak Bilbo erdialdean zeuden,  
ez zegoen saltoki-gunerik... Gu aitari lagunt-  
zen hasi ginen gaztetan eta orain bion ar-  
tean daramagu administrazioa.

### Sari horren onuradunak auzokideak al dira, alegia, ezagutzen dituzue?

Bai, bai, den-denak auzokideak dira. Izan  
ere, asko administraziotik pasa dira eskerro-  
nak ematera eta bai, betiko bezeroak direla

“ Orain jada ez, baina  
lehen, bezeroak saria  
jasotzera banketxera  
joaten zirenean,  
administraziokook lagundu  
behar izaten genituen,  
ordainagiria erakustera ”

baieztatu dezakegu. Orain, lehen ez bezala,  
ez dugu zertan saridunen identitatea eza-  
gutu. Lehen bai, bezeroak dirua jasotzera  
banketxera joaten zirenean, administrazioko  
langileek ordainagiriarekin joan behar izaten  
zuten.

### Kontaguzue, nola bizi izan zenuten saria eman zenuten eguna?

Nor bere etxean geunden, etxeko lanekin,  
janaria prestatzen, Erregeko opariak ireki-  
tzen... Eta, noski, telebista piztuta, ateratzen  
ari ziren zenbakiei adi. Eta bat-batean, ezus-  
tekoa: “aiba, badaukat, badaukat!” Orduan,  
ahizpari deitu eta ziztuan Zorrotzara abiatu  
ginen, Bilbon bizi baikara. Iritsi orduko, ata-  
rian hedabide eta auzotar andana bilduta  
zegoen jadanik.



“ Saria askoz banatuago egon balitz agian auzoko merkataritzan eragina izango zuen. Gainera, ziurrenik saridunek gauza handietarako erabiliko dute dirua: pisua, kotxea... ”

“ Saria atera zenean nor bere etxean geunden telebista piztuta. Bat-batean, ezustekoa! Iritsi orduko, atarian hedabide eta auzotar andana bilduta zegoen jadanik ”

#### **Nola konpondu zarete hedabideekin?**

Uf, kristoren lotsaz, ez gaude itxurak egite-  
ra ohituta! Hala ere, sariaren egunean soilik  
etorri ziren eta besteren bat hurrengo egu-  
nean, ez zen hainbesterako izan. Baina oso  
eskertuta gaude eskaintako arretagatik, ad-  
ministrazio apal bat gara eta publizitatea egi-  
tea ez dago gaizki.

#### **Saria eta gero, bezero gehiago datorrela nabaritu duzue?**

Ba, egia esan, bai, aurpegi berri asko ikus-  
ten ari gara aste honetan [elkarriZketa urta-  
rrilaren 13an egindakoa da]. Izan ere, aste  
honetako zozketarako billete ia denak saldu  
ditugu, beste urte batzuetan normalean so-  
bera izaten dugu.

#### **Sari honek auzoko komertzioari bultzada eman diezaiokeela uste duzue?**

Agian, saria askoz banatuago egon balitz  
bai, baina jende gutxiri egokitu zaionez, ez  
dugu uste auzoko dendetan eragina nabari-

tuko denik. Gainera, ziurrenik saridunek gauza handietarako erabiliko dute dirua: pisua, kotxea... Gure ustez, auzoko dendetan eragin handiagoa izaten ari da pandemia-egoera bera eta instituzio ezberdinek kaleratutako kontsumo bonoak.

### **Pandemia dela-eta, loteria erosteko ohiturak aldatu direla sumatu duzue?**

Bai, ohiturak zeharo aldatu dira, gure administrazioan bederen. Gabonetan, salmentaren zati handi bat tabernetarako, elkarretearako edo kirol-taldeetarako izaten da eta aurten-egoeragatik hori galdu egin dugu. Baina beste alde batetik, leihatilako salmentak gora egin duela nabaritu dugu. Izan ere, Gabonetako loteria uztailetik aurrera saltzen da, jende asko oporregatik kanpora ateratzen denean, alegia. Oso ohikoa izaten da udako oporretan tokian tokiko loteria erostea, eta auzora bueltatzen direnerako, askok ez dute gurean erosten. Aurten, pandemiarekin, jende asko udan bertan etorri zaigu Gabonetako loteria erostera, beraz, batetik galdu duguna bestetik berdindu dugula esan daiteke.

### **Eta bezeroaren profila, aldatu egin da?**

Ez, hori ez da aldatu. Astero-astero apustu bera egiten duten bezeroak ditugu eta, normalean, adineko pertsonak izaten dira. Gazteek kirol apustuak nahiago dituzte, kiniela, esaterako. Beste administrazio batzuek, ordea, beraien kokalekuagatik bezero-mota ezberdinak erakartzen dituzte, dela futbol-partida ikustera doazenak, dela saltoki handietara doazenak, dela turismoa egitera datozenak...



## **LABURREAN**

### **“13, 15 eta 69 dira zenbaki gustukoena”**

#### **Bezeroek saihesten duten zenbakirik dago? Eta zenbaki kutunik badago?**

Askok ez dute zeroa gustuko eta hara non sari potoloa zifra horretan amaitzen zen! Zenbaki bakoitiak oso gustokoak izaten dira, eta denen gainetik 13, 15 eta 69; horiek beti agortzen dira.

#### **Bitxikeriaren bat bezeroen inguruan?**

Batzuek hondamendietako datak aukeratzen dituzte, gauza txar baten atzetik on bat datorrela sinetsita. Bestetik, astelehena izaten da loteria gehien saltzen den eguna, alde handiagatik gainera! Eta administrazio guztietan gertatzen da hori, akaso jende asko erosketak egitera doalako eta bide batez, loteria erostera pasatzen da.

#### **Zuek aukeratzen dituzue zenbakiak?**

Batzuk eskatzeko aukera dugu, bestek, berriz, zorian banatzen dizkigute Madriletik.

**Lápices**  
LIBURVENDENDA

Untziola kalea, 8  
ZORROTZA

**LASTER**  
Elektrizitatea  
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35  
LARRIALDIK: 657 79 57 04  
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA  
ZORROTZA 48013

**MESÓN LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-haztegi propioa  
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
www.mesonluna.es

## Ahuntz gaztaz beteriko kuiatxo

**Osagaiak:** Arto irina, ura, gatza eta txistorra.


Lehenik eta behin, kuiatxo moztu, eta tomate eta gaztaz betetzen dugu. Gero, zartaginean olio bota, eta sutan ipiniko dugu. Bitartean, kuiatxo irin eta arrautzatan pasatu, eta albardatzen dugu. Erreserbatuta geneukan olio bero-beroan botatzen dugu kuiatxo, eta frijitua daukagunean, plater batean utzi, eta piperra frijitzen dugu. Azkenik, platerean aurkezteko, ogi zatia hartu, eta gainean tomate xerra, kuiatxo eta piper berdea ipini.

**Zailtasun maila:** Ertaina

**Prezioa:** 1,70 €

### EL 10 DE FRAY JUAN TABERNA

**Ordutegia:** astelehenetik - igandera  
9:00etatik - 23:30era. Astearteetan itxita  
**Fray Juan 10 • Tel. 94 474 01 63**



## TXOKO FEMINISTA



Genero desberdintasuna, genero indarkeriaren oinarria

Emakumeen aurkako indarkeria prebalentzia altuko fenomeno da munduko herrialde guztietan. Europan, bost emakumetatik batek gaur egungo edo iraganeko bikotearengandik indarkeria fisikoa edo sexuala pairatu du, Espainian, emakume populazioaren %14,2a delarik. Eran berean, Espainian bi emakumetatik batek bere bizitzan zehar emakume izateagatik indarkeria pairatu du eta azkenengo hamarkadan, urte bakoitzeko beren bikotekide edo bikotekide-ohiengandik batez beste 60 emakume erailak izan dira.

Genero indarkeria genero arteko desberdintasunean oinarritzen da eta aldi berean, honi jarraitasuna ematen dio. Indarkeria

mota, noren kontra eman daitekeen, bere limiteak... gizarte kodigo ikusezin baina onartu batek arauturik dago. Horrela, patriarkatua ez da bakarrik modu ikusezinean erreproduzitzen sozializazioaren bitartez, modu kontzientean indarra eta boterearen erabilerearen bitartez ere bai.

Horregatik, emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko, erreforma legalak eta normatiboak aplikatzeaz gainera, hezkuntza parekidearen bitartez sozializazio tradizionalean erreproduzitzen diren rolen aldaketa eta gizarte erakundeetan kultura aldaketa bultzatu beharko da. Horretarako, indarkeria pairatzen duten emakumeen identifikazio goiztiarra egin dezaketen langileen trebakuntza eman behar da, besteak beste erakunde polizial, judizial, politiko eta sanitarioen kultura aldatuz.





Guggenheimeko erakusketa batean ikusi du Norak itzal bat, iheska, lekuz kanpo: beste garai baten gomuta. Ondoa du Alex, galdetu arren erantzunik lortuko ez duena; ez, behintzat, berak nahi litzukeenaren ahotik. Egun berean jasoko du Norak aitaren heriotzaren albistea, eta horrek eramango du bikotea Noraren sorterrira, Vianara. Han, mahasti artean, galderak pila-tuko zaizkio Alexi. Odolezko familian eta hautatutako familian isildutakoak, hitz erdiak eta estalitakoak zurruetan aterako dira, ardoa barrika pitzatuan nola.

(H)ilbeltza bekari esker idatziriko eleberri hau Miren Gorrotxategiren bigarren liburua da. Aurretik *33 ezkil* (Elkar) argitaratu zuen 2016an, eta eleberri horretan oinarrituriko *Hil Kanpaiak* filma estreinatu da 2020ko azaroan.

Doinua:  
Konfesatuta hau esateko

*Urte berria asmo berria*

*dioenaren antzeko*

*tartea hartu nahiko nuke nik*

*nirea plazaratzeko*

*joera beti izan ohi dugu*

*berba larriak tarteko*

*botatakoa beteko denik*

*nola ez dudan usteko*

*hogeitabatak emango ahal digu*


*eskatzeari uzteko!*

*Asier Urkiza*



## Haxotz: "Lore hilak"

(Autoekoiztua) 2020



2020. urteak aldaketa handiak ekarri ditu ezbairik gabe. Kulturak oro har, baina musikak batez ere pairatu izan ditu urte konplikatu honen ondorioak. Haxotz Bilboko taldearen egituran ere aldaketak jazo dira baina aldapan goranzko bidean oztopoak gaindituta lan berria aurkeztera datoz. Entzuleari sentrazio ezberdinak eragin eta estilistikoki anitza den diska kaleratu dute. Ordu erdiko iraupenera iristen ez den lana errusiar mendian bidaia egitea bezala parekatu daiteke. Entzunaldi laburra baina intentsitate handikoa. Rocka, hardcorea, pop ukituren bat... mota askotako eraginak aurkitu daitezke koktel honetan eta izaera propioa galdu gabe eboluzio interresgarri bat lortu dutela esatera ausartuko naiz.

Ikasketa prozesu honetan bakoitzaren bidaia musikalak eta urteetako esperientzia positibo eta zergatik ez negatiboek ere influentzia izan dute. Loreak hiltzen direnean berriak jaioko diren seinale zuzena dira. Hau guztia ulertzeko hoberenena 30 minutu eskas lapurtzea eta 9 kanta hauek dastatzea. Besterik ez.

*Ibai Barrios*



El 10 de Fray Juan

Pintxo askotarrikoak, hamburgeresak eta sandwichak  
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)  
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



STAZ  
OKINDEGIAK

**Zorrotzako  
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34  
Tfn. 94 441 09 71  
Zorrotza - 48013 BILBO



PENSA  
ZORROTZA

**BAR VENECIA**

**Espezialitateak:**  
Kafea, tortilla, tortilla beteak  
eta bestelako pintxoak

**Abaro estrata 10**


**AUPA ATHLETIC**



## Errege Untziola



Zorrotzako Errege Untziolako sarrerako atea zena



Untzi zaharra portuan

Untziola hau oso ondo kokatuta zegoen. Bilbotik legua batera eta bere inguruak guztiz aldekoak ziran, kalitate handiko egur basoak, erreztasun handiek behar dan guztie garraiatzeko, beharrak betetzeko langile jakitun, asko eta onak, burdindegia, sokaegileak eta untzien egiteko behar ebiezan lantegi ezberdin ea guztiek.

XVgarren mendetik datatue, 1615 arte jabe pribatuek eramaten ebien, garai hoietan beharrak egiteko harmailak eraikitzen ebiezan beharren bat egonien, untxi bat egin edo konpondu..... eta behin beharrak amaitutak izten zirela denboraz... beste untxi baterako behar ziran arte. Gero biltegi batzuk eraiki ziran lekuen eta langilientzako kapila bat (apaizek.....)

Garai hartan Zorrotza Bilboko famatuena zan, egindako untxien kategoria eta tipo ezberdinetatik, Abratik kanalera. 1570. hamarkadararte proako aizeekaz joan zan dana, espainako monarkiaren enbargoengandik eta Bilbo azolatu eban zuagatik gelditu eban untxiolaren gorakada.

Garai hortan Deustu, Abando eta Zorrotzako untxiolak galera handiek izan ebiezan tona handiko untxiek egiten biezalako; 1610an Austrei zabaldu eutzien erregeko untxiola bat egiteko, indietarako untxiek egin behar zirelako eta Baltikotik ekartzen ziralako material guztiak. Ondo hartu ebien eta 1615ean Koroak erregeko untxiola sortu eban Zorrotzan.

Handik aurrera galeoiak, guda untxiek, korreok eta indietako abisuek bertan egin ziran. XVIII mendearan hasieran Zorrotza untxiola erraldoia bihurtute egoan, eraikin asko, harmailak, biltegiak, alboko lantegiak.... eta dana harrezi bategaz inguratute. Garai hortan nerbioiko industria gunea bakarra bihurtu zan.

1764ean Borboiek zergarako korreo bulego bat jarri ebien, harek ekarri eban gorakadagaz. 1767ean zabaldu zan lantegie, 183 lur estado erosten, biltegiex handi bat eraikitzeko, baie 1770arte ez zan eraiki.

1795ean Frantziako tropek untxiola hartu ebien, eta egiten ari ziren fragata bi ere.

**Santer**  
BAR

Afariak ostirala eta larunbatetan  
Ettxeko berezitasuna: katxopoa.

Telefona: 944 415 416  
Zorrotzabaso, 13  
ZAZPI LANDA

Iragar zaitez

**ZM**

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!


Euskara sustatu  
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:  
[zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

Handik aurrera untziola lagatzen da eta 1801ean erregeak enkanten jartzen dau. Espainako armadak hartzen dau baie ez dau probetxorik egiten.

1840.anean untziegile batzuk hartzen dabe merkauntziek egiteko, hoiien tartean, Santiago Arana, Manuel Urkiaga, Juan Felipe Abrisketa, Manuel Mintegi, Pedro Bilbao eta Marcelino Bareño.

XX. mendearan hasikeran geratzen zan bakarra jada, sarrera nagusia, eta kordeleria, Ybarra eta konpañiak erosi ebalá. 1920. hasikeran kordeleria zaharra eta untziolako azken aztarnak eraitsi ebiezan Molinos Vascos (euskal errotak) eraikitzeko.



Ilus. 17. Plano del Real Astillero de Zorroza, 1782. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Museo General de Indias, M y PE y af 43.

Zorrotzako Errege Untziolako planoá. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Indietako Artxibo Orokorra. 1782.

### Zorrotzako Untziolan egindako untzien zerrenda eta egileak/hornitzaileak

- **1613:** 10 galeon.  
(Zorrotzan, Deustun, eta Abandon eginde). Martin Bertendona.
- **1618:** Galeoiak. Agustin Ojeda.
- **1619:** 6 galeoi eta patatxe 2. Martin Arostegi.
- **1625:** 6 galeoi. Martin Arana.
- **1635:** 9 galeoi. Martin Arana.
- **1635:** Patatxe bat (Zorrotzan eta Deustun eginde) Martin Arana.
- **1635:** Galeoi bi, Pedro Urezandi eta Damian Etxebarri.
- **1637:** 4 galeoi, Martin Arana.
- **1662:** Galeoi bat, Domingo Grillo eta Ambrosio Lomelin.
- **1666:** Galeoi bat, Domingo eta Ambrosio.
- **1667:** Galeoi bat, Domingo eta Ambrosio.
- **1694:** Nabio bat. Basabe Iriberrí.
- **1698:** Nao bat. A. Lezama eta Axpe.
- **1698:** 8 galeoi. A. Lezama eta Axpe.
- **1698:** 8 galeoi, Juan de Salmon.
- **1699:** Galeoi bat. Ezezagunak.

**AUTO ESKOLA**  
**KAIKU**

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfno: 94 427 88 10

Restaurante  
**Arsenio**

Tfno. 94 497 10 03  
Clara Campoamor, 6  
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (enkarguz)  
Eguneko menua

**cafe txinbo**

Espezialitateak:  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak

Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74

## Nekearen teoria

Pasa den urteko martxoaz geroztik, izaera bikoitza antzematen zaio denborari. Lekutan geratu dira estampa aurre-pandemikoak, baina abiadura bizitu duen neurri berean halako kutsu motela dario. Aldaketaren bortitzak iragan ia-mitologiko batera lekualdatu du gure lehengo bizimodua, kolpe bakar bateko eba-kiaz. Haren orde, aurrekoagatik autonomo dirudien orainaldi etengabe errepikatua utzi digu. Olatu beti berberen artean igeri eginez moldatzen gara gu. Lehenengoa, bigarrena, hirugarrena. Lehenengoaren harridura aurpegi berberaz hirugarrena jasoz, aho beti berberak hotz beti berberetz beterik. Geldotasun mugikorrean bizi. Ez da erraza.

Egoera berrian betiko keinuekin tematzearen alferrikotasunak nekatzen du. Aldi berean ezer ez eta dena gertatzeak nekatzen du. Aldatu gabe aldatzeak nekatzen du. Errealitate itxuraldatuan buruak lehengo lepotik dirau. Nork

berean gotortzeak nekatzen du, besterenean maizago ezin desegiteak. Azalaren kodea lausoturik ageri. Moteltasunaren itsasoin mugitu beharrak, nekatzen. Helduleku faltak, nekatzen. Nekatzen bi begiren antsia aseeginak. Zaratak nekatzen du, ezerezaren inguruko mihi jariotsuak. Eta isiltasunak ere bai, pentsakizun zorabiatuen kabi. Nekatzen dute guak eta niak. Zuak. Neketan. Penetan. Odoletan.

Nekearen teoria osoa sortu astelehen buruzuriz. Eta halere, berau sorbalda gainean bermatu eta pausu bat bestearen atzetik eman. Denborari gain hartu, hari aurre egiten saiatu. Ahalak baliatu, hortzak estutu. Nekearen muturrerainoko bidaia egin. Lehertu, apurtu, arrakalatu, pitzatu. Hondo-hondotik ohe bat bueltan ekarri. Hostozko ohe batean etzan eta ehun urtez lo egin. Gero, altxatu eta pausu apalek gida zaitatela. Bide bat beste batekin harilkatuz kartografia bat asmatu. Ez dago zalantzarik, nekeak erdituko du mundu berria.

*Asier Urtiza*



# korrika<sup>ren</sup> katilua salgai!

5 euro

---

**AEK-ko euskaltegietan eta  
[www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean.**

---

**Harrapatu aukera!  
Elkartasuna  
biderkatuko dugu.**

*aek*

## SALAKETA ARGAZKIA



### Zorrozgoitibidea kalean espaloirik ez

Zorrozgoitibidea kaletik Flex fabrikara doan tartea oso arriskutsua da oinezkoentzat, espaloirik ez dagoelako eta galtzada ibilgailuekin partekatu behar delako. Auzo elkarteak egoera hau konpontzeko askotan eskatu duen arren, momentuz bere horretan jarraitzen du. Hori gutxi balitz, ez dezagun ahaztu FEVEren trenbide-pasaguneak kale hau zeharkatzen duela.

## Etxegabetzerik ez!

COVID19aren ondoriozko krisi ekonomikoa oso modu oldarkorren jotzen ari da langile eta pertsona gehiagoren aurka. Etxegabetzeak dira prekarietatearen ondorio gogorrenetako bat eta, zoritxarrez, ohikoena. 2008ko krisian, banketxeen hipoteka ez ordaintzeagatik etxe-desjabetzeak oso ohikoak izan ziren; gaur egun, aldiz alokairua ez ordaintzeagatikoa dira ohikoena.

Artikulu hau idazterakoan, otsailaren 2rako Zorrotzako bizilagun baten etxegabetzea aurreikusita dago alokairua ez ordaintzeagatik. Etxegabetua izatekoa den familia erabateko babesgabetasun egoerara bultzatu du Oina-

rizko Gizarte Zerbitzuaren eta Bilboko Udalen Etxebizitza Sailaren utzikeria. Eragile horien jardunik gabe, ez dago bizitzeko beste aukerarik, eta Estatuan onartu berri den etxegabetzeen aurkako dekretua ere ezerezean geratuko da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen beharrezko txostenik gabe... Beraz, funtsezkoa da Udalaren aldetik auzoak jasan duen utzikeria salatzea.

Zentzu horretan, horrelako oinarrizko eskubideen urraketen inguruan eta horiek salatzeko antolatuko diren mobilizazioei adi egoteko deia egin nahi dizuegu Zorrotzako bizilagunei. Izan ere, etxebizitza duina izatea pertsona guztien oinarrizko eskubidea da.

*Zorrotzako L.A.B.*

**Jai-Alai**  
kafetegia



Abaro estrata. 12  
94 490 12 59



**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12



**PICOS**  
burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefonoa: 94 441 64 86



### Bego

Bai, guztiz txertoaren alde. Orain arte daukagun interbide bakarra baita, beraz...



### Begoña

Erabat sinetsita nago ipini behar dugula, bestela ondorioak oso larriak izango direla uste dut.

## Covid19ren kontrako txertoa:

Jartzeko prest zaude?

Narrea Peña



### Denis

Bai. Birusa geldiarazteko eta pixkanaka-pixkanaka normaltasunera itzultzeko modu bakarra dela ematen du.



### Ángel

Bai, jakina. Nik uste dut beharrezkoa dela. Herritar guztiek immunitatea izan behar dute



### Karen

Etorkizunagatik bada eta biztanleriaren egonkortasuna ziurtatzen badigute, aurrera, bai.

# ehbildu

egiteko  
beste  
modu bat



**ASKABIDE**  
kultur elkarte  
**ZORROTZA**

# Bilbon euskaraz

**B**

**Bilbao**

▶ [www.bilbaoeuskaraz.eus](http://www.bilbaoeuskaraz.eus)

**iKasi**  
**MiKasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI ELIH

Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • 📍 94 442 48 75  
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELIH

Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • 📍 94 442 00 21  
✉ 014159aa@hezkuntza.net



I.E.S.  
ZORROTZA  
B.N.I.

San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374  
☎ 94 439 97 41  
📍 015078aa@hezkuntza.net  
[www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net](http://www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net)



ADIERAZLEA OK PLUS KONTUARI DAGOKIO

1/6

NEURRI HONEK  
PRODUKTUAREN ARRISKUA  
ADIERAZTEN DU  
HONETAN, 1/6 ARRISKU TXIKIA  
ETA 6/6 ARRISKU HANDIA  
DAGOELA ADIERAZTEN DU.

KUTXABANK KREDITU ERAKUNDEETAKO  
GORDAILUEN BERMERAKO FONDOARI  
ATXIKITA DAGO, URRIAREN 14KO 16/2011  
LEGE DEKRETUAN EZARRITAKOAREN  
ARABERA, FONDO HONETAN BERMATUTAKO  
GHEHENEKO DIRU-KOPURUA, GAUR EGUN,  
GORDAILUGILE BAKOITZEKO 100.000  
EUROKOA DA.

# OK KONTUA DAUKATENAK DAGOENEKO KUTXABANKEKO BEZEROEN ERDIA BAINO GEHIAGO DIRA ETA, GAINERA, EZ DUTE MANTENTZE KOMISIORIK ORDAINTZEN.

**% 52,0**

kutxabank

**Eskatu OK Plus Kontua eta ahaztu komisioak.  
ITN eta UTB %0.\***

\*BALDINTZAK: • HILEKO 600 EUROKO GUTXIENEKO NOMINA EDO HILEKO 400 EUROKO GUTXIENEKO PENTSIOA HELBIDERATUTA ETA HIRUHILEKO LIKIDAZIO-ALDI BAKOITZEAN 6 ORDAINAGIRI ZORDUNDUTA EDUKITZEA. BALDINTZA HORI EZIN BADUZU BETE, ORDEZKO AUKERATZAT JOKO DA KUTXABANKEN INBERTSIO-FONDOETAN, BASKEPENSIONESEN ETA PENTSIO-PLANETAN BATEZ BESTE 20.000 EUROKO EDO GEHIAGOKO HIRUHILEKOKO SALDOARI EUSTEA. • ONLINE BANKAKO ZERBITZUA KONTRATATUTA ETA TITULARRETAKO BAKOITZAREN TELEFONO MUGIKORRAREN ZENBAKIA JAKINARAZITA EDUKITZEA. • KONTU HONI LOTUTA DAUDEN ETA BEREN TITULARRENAK DIREN TXARTEL GUZTIEN KONTSUMO GARBIAK HIRUHILEROKO LIKIDAZIO-ALDI BAKOITZEAN,

GUTXIENEZ, 300 EUROKOA IZAN BEHAR DU EDO 1.200 EUROKOA LIKIDAZIOAREN AURREKO 12 HILABETEETAN. OK KONTUAREN BALDINTZAK HIRU HILEAN BEHIN BERRIKUSTEN DIRA, BALDINTZETAKO EDOZEIN EZ BETETZEAGATIK, SORTZAPENAREN ONDORENGO HILABETEAN, (HIRU HILABETEKO) LIKIDAZIOALDI BAKOITZEKO 40 EUROKO KOMISIOA KOBRATUKO DA ZUZENEAN. HIRUHILEKO LEHENENGO LIKIDAZIOA SOILIK ORDAINDU EZEAN, 3.000 EUROKO BATEZ BESTEKO SALDDA IZANEZ GERO, 40 EUROKO KOMISIOA LAUGARREN HILABETEAN KOBRATUKO LITZATEKE ETA, HORREN ONDORIOZ, -%1,34KO UTB ATERAKO LITZATEKE (ITN: %0). UTB KONTUAREN BATEZ BESTEKO SALDOAREN ARABERA ALDA DAITEKE.